

Joxerra Garzia

♦ IDAZLEA



DANI BLANCO

Txiste bizi naiz eta...

BADOAZ BI EHIZTARI basoan barrena, eta, halako batean, bietako bat ziplo erortzen da lurrera, konortea galduta. Besteak, izututa, larrialdietarako telefonora hots egiten du, eta telefonoa hartzen duenari esaten dio: “Uste dut nire laguna hilda dagoela. Zer egin behar dut?”. Telefonoz bestaldekoak honela erantzuten dio: “Aurrena, ziurtatu behar duzu zure laguna hilda dagoela”. Orduan, tiro bat entzuten da, eta segidan ehiztariaren galdera: “Bale, eta orain zer egingo dut?”.

Honaino, txiste zahar eta ezaguna. Txarra ez, baina ezta nire kuttunenetakoa ere. Hortik nire harridura, prentsatik jakin nuenean zer eta munduko txisterik onena omen dela.

“Omen” esan dut, baina omena kendu beharko nioke (zalantza, alegia, ez izen ona), ikerketa zientifiko bezain serio, serio bezain luze eta luze bezain garesti baten emaitza baita ebazpen hori. Ez da, beraz, zu eta ni bezalako to eta no txotxolo ezjakinen lagunarteko usteketa ustela, zientziaren azken epai erabatekoa baizik. Munduan ahoz aho, paperik paper eta pantailaz pantaila dabil-tzan txiste guztien artean parerik ez duen txiste paregabea da gure ehiztari parearena. Amen.

Aurreko paragrafoak garbi asko erakusten duenez, oso tarte txikia dago omenetik amenara, oso tarte txikia dagoenez. Bidea are laburragoa da, noski, kutsu akademikoaren duten zertzelada batzuk ematen badira. Adibidez, psikologo bat dela ikerketaren zuzendaria (izena da gutxienez, alboan “katedradun” eta “university” bat aipatuz gero).

Onenaren (txiste, kirolari, herrialde edo beste zernahitan onena denaren) pes-

kizan, hala jarri nahi gaituztela, horra nire susmo beltza. Eta onena ez denean, beste superlatiboren bat aukeratu, eta hor hasiko zaizkigu hitzik edo kanturik edo hiririk politena izendatzeko lehian.

Eta kontuz, alferrik baita inposatu nahi diguten hori ukatzen hastea. Alferrik dela, alegia, txiste hobetik badela esatea, edo euskarazko kanturik onena ez dela Xabier Letek Xalbadorri eskaini ziona, edo gaztelaniazko hitzik politena ez dela “paz” (horraino iritsi zaizkigu eta).

Ez, botereak hitzez hitz diotenari kontra egitea ez da estrategia egokia, boterea gizendu baizik ez baitu egiten. Botereari kontra egiten diogulakoan, hark ezarri nahi dizkigun eskema eta parametroak onartzea da hori. Irakurri horretaz, mesedez, George Lakoff-en

Don't think of an elephant liburua, sarean eskura daitekeena (ingelesez eta gaztelaniaz dohainik, euskaraz ordaintuta ere ez noski, tamalez).

Hemen axola duena ez da txisterik (edo dena delakorik) onena zein den.


Hemen kontua da “onena” kontzeptua irentsarazi nahi dugutela, aurretik ezin bada atzetik sartuta.

Kasu bakoitzean onena zein den eztabaidarekin entretentuta gauzkate, onenaren kontzeptua irigarria ez ezik gaizto eta arriskutsua dela ohar-tu eta aldarrikatzen hasiko garen beldur.

Ilargia seinalatzen dion atzamarra ikustean ilargiari gabe atzamarrari begiratzen diona ergel tenteltzat hartu ohi da, baina hori da modu bakarra konturatzeko atzamar hori esku baten atal dela, eta eskua beso batena, eta besoa gorputz batena, eta gorputza pertsona batena, eta pertsona nola edo

halako botereren batena, eta dena delako botere horrek gure nagusi izaten jarraitu nahi duela, morroi eta mirabe behar gaituela, zoriontsu plantako inozo.

Gehiago behar genituzke horrelako ergel tentelak, hartara munduak agian utziko lioke, halako batean, txiste txar bat izateari. ■



Antton Olariaga